

LAN ESKAINTZA

Laborantzan entseatzeko tresna den Trebatu elkarteak langile bat xekatzen du.

TREBATU-ren formakuntza atalaren koordinatzaile bat, bereziki « Entreprendre en agriculture Paysanne » (*orai arte Stage Paysan créatif deitzen zena*) formakuntzaren kudeatzeko.

Urte bateko kontratu mugatua (CDD), mugagabea bilaka daitekena (CDI).

TESTUINGURUA

2016-tik TREBATU elkarteak « **Laborantzan Trebatzeko Gunea** » kudeatzen du ipar Euskal Herri eta Landes hegoaldean, eta 2020-tik « Stage Paysan Créatif » formakuntza ipar Euskal Herrian.

Sail desberdinetako 10 egiturek osatzen eta kudeatzen dute Trebatu : Laborantza arloko elkarteak : [EHLG](#), [Lurzaindia](#), [Euskal Herriko etxe ekoizleen elkartea](#), [Biharko Lurraren Elkartea](#), [AFOG](#) elkartea eta [ELB](#) sindikatua ; Kontzumitzaileen izenean : Euskal Herriko [Inter-AMAP](#) sarea ; Laborantzako formakuntza profesionalaren izenean : Hazparneko [CFAA](#) eta Izurako [CFPPA](#) ; Kolektibitateen izenean : [Euskal Hirigune Elkargoa](#) ; Ekonomia sozial eraldatzailearen ordezkari : Tarnoseko [Interstices](#) inkubatzaile/enpresa kooperatiba.

« Stage Paysan Créatif » formakuntzak laborantzan instalatu nahi duten 12 pertsoneri, lur funtsa ukan ala ez, beren proiektua denbora hartuz ongi lantzeko ahalmena emaiten die.

11 hilabeteko formakuntza hau 2022ko azaroan abiatzen da, eta osaketaren aldetik hein haundienean etxaldeetan imertsioan lan egitea da (%70-ean), baina ere 21 egunez formakuntza kolektiboan parte hartzea, 6 eguneko formakuntza teknikoan, eta TREBATU-ko koordinatzaile eta laborari formatzailearekin erregulariki puntuak egitea.

TREBATU-k jadanik 2 formakuntza saio segurtatu ditu 2020-ean (14 ikasle) eta saio bat 2021-ean (12 ikaslerekin). Aurten, formakuntza « Entreprendre en Agriculture Paysanne » ziurtagiriaren kriterioetara lerrotatuko da.

MISIOAK - *Administrazio kontseilua, batzorde pedagogikoa eta lan taldearekin harremanetan lan eginez:*

❖ **ENTREPRENDRE EN AGRICULTURE PAYSANNE FORMAKUNTZA**

- **Ikasle berrien kontratazea eta komunikazioa** : Informazioa zabaltzeko sarearen bitartez (prentsa idatzia, berri papera, irratia...) eta proiektu eremaille edo interesatuen eskaereri erantzun, informazio bilkura pare bat antolatu, kontratatzearentzat epai maihaiak bildu eta ahozko saioak antolatu.
- **Formakuntzaren trunco amankomunaren antolaketa koordinatu** (21 eguneko formakuntza kolektiboa). Trebatuk egun hauen arteko hari gorria segurtatuko du, aldi bakotx egunaldiaren aurkezpena eta bilana eginez.
- **Formakuntza kolektiboen egun zombait animatu**, batzorde pedagogikoak hartu erabakien arabera.

- Ikaslearen eta laborari formatzailearen **segipen indibiduala segurtatu**.
- Partaide eta parte hartzaileen arteko **loturak kudeatu eta** formakuntza erditsutan eta bukaeran **bilan bat egin**.
- **Proiektuaren segipen orokorra egin** : ikasleen segipen administratiboa, egunaldi kolektiboen antolakuntza, aurrekonduen kudeaketa, elementuen bilketa.
- **Batzorde pedagogikoak animatu**.
- Akitania Berria, Limousin eskuldetako ARDEAR, eta Dordoniako « Maison des paysans » eta ABDEA egiturekin **trukaketak segitu**.
- **« Entreprendre en Agriculture Paysanne » ziurtagiriaren lekuan emaita segitu**.
- **Diru iturrien kudeaketa** GAF kudeatzaile adiminitratibo eta eta finantzarioarekin batera.
- 2023 urterako **diru iturrien bilaketa lana** GAF eta Akitania berrian proiektu amankomunak dituzten egiturekin elkarlanean.

❖ LABORARIEN FORMAKUNTZA

- 2022 urte bukaerako eta 2023 urteko lehen hiruilerako formakuntzak antolatu : DUERP edo arrisku profesionalen ebaluatzeko tresnaren idazketa – ikasleak errezibitzen dituzten laborarien formakuntza komunikazio eta segipen arloan.

❖ BESTE MISIOAK

- QUALIPI formakuntza gaitasunaren eskuratzeko desmartzak segitu (ARRAPITZ-en laguntzarekin).
- Elkarte bizitzan parte hartu :
- Trebatu entsegu gunearen misio zonbaitetan parte hartu.

GALDEGINAK DIREN GAITASUNAK

Laborantza munduaz eta elkarte bizitzaz interesa

Jakintza : ingeniarietza pedagogikoa, proiektuen segipen eta koordinaketa, formakuntza eta bilkuren animazioa, proiektu eremaielen laguntzea, segipen administratibo eta finantzarioa, diru iturrien bilatzea, bulegoko programen menperatzea.

Izaitea : harreman mailan eta idatzian aisetasuna, antolaketan, lan taldean eta autonomian lan egiteko gaitasuna, inizatiba ekarle izan, kuriosa, izpiritu idekia, dinamikoa.

Baxoa + 3 urte gutienez, edp esperientzia profesionala.

Euskara jakitea preziatua. Euskara ikasteko formakuntza profesionalaren aukera.

LAN BALDINTZAK

Izuran kokatua. Autoa beharrezkoa, kilometro gastuak ordainduak. Hilabete bateko entsegua.

Hilabete saria garapen elkarteen saien arabera.

Elgarrizketak ekainaren 1-ean , lan postuaren hartzea 2022ko uztailaren 5-ean pentsatua.

HARREMANAK

CV eta motibapen gutunak igor 2022ko maiatzaren 27ko helbide honetarat : TREBATU elkarte, lehendakari jauna, Haize Berri, 64120 IZURA-AZME, edo mailez : trebatu@outlook.com

Xehetasun gehiagorentzat : trebatu.spc@outlook.fr – 06 74 85 69 74